

SAHARAKO UMEAK HERNANIN

Bederatzi umekozkor Hernaniko bizimodu errazean

Astelehenean etorri eta irailera arte egongo dira hemengo familietan. Saharan ez dituzten gauzak estimatzen dituzte: bizikleta, igerilekua, telebista...



Amaiur, Irati, Ayub eta Axel. Festa ederra elkar hartzean!

Frente Polisarioa eta Hernaniko familiak tarteko, bederatzi ume saharai daude udara pasa Hernanin.

Ayub, Mohamed Salem (izen bereko bi dira), Mahmud, Fatma, Mohamed Nafi, Sinau, Jatri eta Mamia-k ez dirudi arazo gehiegirik dutenik hemengo bizimodura ohitzeko.

AYUB-EKIN HIZKETAN
Zer moduz ote dauden jakin asmotan Ayub-engana jo dugu Mirari eta Jose Mariarenera. Irati, Axel eta Amaiurrekin dago salan, lasai. Galderak

motz-motzean erantzun eta hor doa telebista piztera, ostera ere! Tiraka bada ere esan dizkigu kontu batzuk.

KIROLA GUSTOKO
Bizikletan ibiltzea, igerilekua, hondartza eta futbola ditu gustoko. Burrukako pelikulak (Jean Claude Van Dammerenak bereziki), noiznahi ikusiko lituzke. Txerria ez beste edozer jaten du. Hala ere Coca-Cola, txokolatea eta haragia ezer baino gustorago. Mirarik dio "aita gerran da" esaten duela. Hotzikara ere ematen du.



Mirari Otxandorena
Ayub hartu duena

"Hain bizimodu xamurra ez duen jendea ezagutzea ona da umeentzat"

FATMA LOTSATIAGOA

Eguraldia medio, hauek ere etxean dira: Begoña ama eta lau umeak (Xabine, Udane, Ainara eta Fatma) telebistaren aurrean. Etxeko hirurak bai, baina, Fatmak ez du hitzegiteko gogo haundirik. Ez ulertuarena egiten du, nahi duenean ederki moldatzen badaki, baina. "Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait" dio, eta Begoñak "ni ere gameluan ibiliko nintzateke".

Zeren hutsunea nabaritzen duen galdetzean, aita eta amona Saharan dituela gogorarazi digu. □



Fatma, Xabine, Udane eta Ainara. Umeak derrepente egiten dira lagun min. Distantzia zer da, ba, azken finean!

'Erin Brockovich' filmak itxiko du zine emanaldia

Lehenengo egunean seiehun aulkiak bete egin ziren. Gaurkoa ere 20:30etan Gudarien Enparantzan.

Eguraldiak asko lagundu gabe pasa beharko du aurtengoak. *Erin Brockovich* filmean, hor ibiliko da Julia Roberts jendea hiltzen duen ur-zikinen

kontua nondik argituko. Benetan gertatutako istorio batean oinarritua omen da, gainera. Hala ere, ateri egiten badigu behintzat, gaitzerdi! □

■ ARRAUNA

'Elorrabi 78'

Horra Hernaniko traineru berriaren izena. Plentziako Banderan estreinatuko dute gaur bostetan.

ELORRABIKO zubia erorita, 78ko egun beltz hartan hil zirenetan pentsatuta jarri diote izena *amilibia* berriari.

Denera 16 traineru lehian. Elorrabi 78'k San Pedro, Ur Kirolak eta Zierbana izango ditu ondoan. □

Andrekaleko festak bihar

Berrogei urteko etena eta gero, aurten bigarren kolpea. Orain, Kale Nagusikoak 'xaxatu' nahi dituzte.



Andrekaleko "saltsa" eta iazko omenduak.

Iazko arrakastak aurtengorako festa gose haundia utzi izango zuen. *Kaxko* auzo elkarteko dozena erdi lagun bildu eta festa Andrekalean. Berez,

Kale Nagusikoak eta biak omen ziren egitekoak, baina, bileretara Andrekalekoak bakarrik azaltzen eta... *Xaxatuz gero hasiko dira.* □

ITXASPE
ARRANDEGIA
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA
Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
HERNANI

KORU KANTUAK HERNANIN

Zumaiako San Pedro abesbatza gaur Sandiusterrin

Aurretik hernaniarrak han izanak dira eta Kantuz abesbatzak gonbidatuta dator; emanaldia arratsaldeko zortzietan.



Hainbeste entsaiatuta, azkenerako ikasi! "... bainan horrela ez zen gehiago..." Laboak arrazoi!

Kantuz abesbatza urtean lau bat herritara joaten da. Gero beste hainbeste datoz Hernanira, ordainetan; gaur zumaiarrak bezalaxe.

Agur Maria, Nere maitea, La hamaca... Errepertorio zabala dakar San Pedro abesbatzak Agustin Zubimendi buru dute-

la. Kobratzen ez dutenez, afari ederra ondo irabazia dute.

INTERNETETIK KONTAKTUAK

Kantuzekoak iaz Bartzelonara ere joan ziren Interneten mia-tuta. Aukera non dagoen ikusi eta hara! Entsaioak ez, orain-goz ezin dira internetez egin.

Astelehetan batzuk eta asteaz-kenetan talde osoa biltzen da.

ATEAK ZABALIK

Ez hasiaren penetan bazaude, lasai. Garaiz zabiltza oraindik: joan eta kantatu beste lanik ez duzu. Hori bai, joan ordea, behin hasiz gero, beti joan behar da, eh! □

■ JASOTA BEZALA

GUK ERE IKUSI GENUEN HURA

Orain dela egun batzuk ikusita-koaren berri eman nahi dizuet. Badakit dagoenerako *Kronikak* eman duela honen berri, baina, argazkia Bizkaitik bidali behar zidan lagun batek, eta halako lanak jarri eta gero...

Ikasturteari agurra emanez, lagun talde batek mendi irteera bat egin ohi dugu. Ibilbidea aukeratzeaz ardura-tzen denak eragile bat baino gehiago hartu behar izaten du kontuan: hautatutakoa bide erraza izatea, bazkaltzeko lekua hartzea edo prestatzea, eta ahal bada, gehienontzat leku ezezaguna izatea, bertako turismo pixka bat egitearren.

Iritsi zen eguna eta dena prest neukan. Mimo haundiz prestatu nuen azpiegitura guz-tia, hau da, otorduetarako lekua. Ibilbidea, berriz, niri izu-garri gustatzen zaidan inguru-an: Akola mendian. Baina, dena ondo prestatua eta antola-tua dagoen gehienetan gerta-tzen den legez, egun hartan ere izan genuen ezustekorik:

Oinez ordu laurden bat generamala, oraindik mendi gaina urruti samar, parajearen edertasunaz ari ginen. Bazter haietako paisaiarekin bat egi-nik baserritar bat ikusi genuen soro aldapatsuan segan. Gehienak segalariaren figurak atentzioa emanda begira geratu gintzaizkion. Artean, taldeko

inuxenteenak beste aldera begi-ra, hamaiketako bikaina zeuka-la adierazi zuen.

Hamaiketakoa? Bai zera! Ez genekien zer arraio izan zitekeen, sorginkeria, magia zuria? Baina, bankete hari ez genion inork itxura onik hartu. Gure taldeko sorginena ere zuri-zuri eginda geratu zen hango odol arrasto, luma, edari, eta abarrekin.

Badaezpada, taldeko argaz-kilariak irudia bere makinan jaso eta aurretik agindu nien ikusmira lasaigarriaz gozatzero joan ginen. Hamaika ikusteko jaioak gara!

Andoni Lizeaga

ZUEN GUTUNAK:

Larramendi 11
Faxa: 943 336306

E-Posta: kronika@topagunea.com

Oharra: Gehienez 800 karaktere (orri erdi bi espaziotara)
Gainontzean Kronikak bere gain hartuko du gutunak laburtzea.
Bidali izen abizen eta NAREN zenbakia.

■ HITZ BITAN



Ondo begiratu ge-ro zer sinatzen dezuten!

✓ HITZARMENA

Atzo sinatu zuten Dobera Euskara Elkarteak eta Hernaniko Udalak Kronikaren hitzarmena: urte bukaera arte 4 milioi eta lokala. Argazkia eta pastelak ardo goxo ttantto batekin.

✓ UDALEKUAK

Udalekuetako umeek Akelarrea egin zuten atzo. Giroa ere halakoa-eta, aurrena kiroldegian eta gero egin zuten Tilosetan. Beste batzuk, berriz, udaletxean ibili ziren *bazter guztiak endredatzen*; zinegotzien firma bila, nonbait, altxorren bila jokorako. "Zer da zinegotzia?" ume batek altuan: erantzun, ba!

✓ TXIRRINDULARITZA

Gaur Kaikuko gazteak Bergaran dute proba. Berrogeita bost kilometro Arrasate, Oñati, Legazpi eta Antzuolatik buel-tan. Udana eta Deskarga pasa beharko dituzte. Ea Tourretik ezer ikasten duten! □

A G E N D A

❖ ZINEA

⇒ 'Erin Brockovich'.
Zuzendaria: Steven Soderbergh.
Antzezle nagusia: Julia Roberts.
22:30etan plazan.

❖ MENDI IRTEERA

Pic de Ardidenera aste-buru pasa. Goizeko 10:00etan plazan.

❖ KANTUA

Zumaiako San Pedro abesbatzaren kantu emanaldia
20:00etan, Sandiusterrin.
❖ **BERTSOLARITZA**
Bertso bazkariak

Bertsolariak: Iraulioko Panttalenok.

Utzi Hernani pakean pla-taformak antolatua.
Santa Barbara eta Txala-parta elkartean.

INGURUAN

❖ AÑORGAKO JAIK

⇒ Bakailau prestaketa eta artisautza erakuske-ta Eguerdian.
⇒ Daddy Jeff eta Aritz Sound Sistem musika jartzen.
23:00etan Gazte txokoan.
⇒ Izotz taldearekin gaupasa.



FARMAZIAK

► Egunez: **Sagastiberri**
(Urbietan, 7. ☎ 552941)

► Gauez: **Acha LASARTE**
(Hipodromo etorbidea, 6. ☎ 363546)



TELEFONOAK

► Taxiak: 550093
► Udaltzaingoa: 333288
► DYA: 464622
335533
► Anbulategia: 557750

ZINKOENEA



PENTSIOA

- Erdialdean.
- Kanpoko logelak.
- Telebista
- Logelak bainugelarekin.
- Berogailua.



670 390 897

Kale Nagusia, 57 -1.
20120 HERNANI



Antziola-Motor

ZERBITZU OFIZIALA

Antziola 12
Tel. 943 55 57 72 - Faxa 943 55 21 96
20120 HERNANI